

berria

Berotu beharreko motorra

ANALISIA

Ainara Gorostitzu

Abanguardista, apurtzailea, atipikoa... Hitz potoloak entzun ziren atzo Tabako Fabrikan egingo den Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunearen edukiak aurkeztean. Tabako Fabrikarekin kultur politiketan aldaketa etorriko da, mugarri bat izango da, biribildu zuen bere jarduna Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusiak. Garaikidetasuna, mutazioa, nazioartekotasuna, eleaniztasuna, diziplinen nahasketa... izan zituen hizpide Joxean Muñoz KGNGren zuzendariak. Hitz handiak guztiak. Haizeak eraman ditzakeenak, alabaina, heldulekurik ez badute. Baina Tabako Fabrikak 4.500 pibote euskarri ditu, 26.334 metro koadroei eusteko. Eta Muñozek, abiapuntu argia, duela urtebete egunkari honi esan zion moduan: Proiektuak sustraiak oso sendo eduki behar ditu. Tabako Fabrika beharrezkoa da euskal kulturgileek motor bat izan dezaten.

Motorra, beraz, euskal kulturgintzarentzat, kultur politika aldatuko duen motorra. Baina nondik etorriko da aldaketa? Zer zentzutan? Kultura bisualaren fabrika deitu zion atzo 1913ko eraikinari Muñozek. Ikus-entzunezkoak izango baititu zutabe. Irudiaren garaia da, argi dago, irudiak egiten gaitu garaikide. Eta alorrari loturiko egitasmo zehatza aurkeztu du zuzendaritzak, zorrotza. Hitz hori, hamaika aldiz izan zuen ahotan, proiektuak eskatuko duen zorrotasuna erakutsiz, baina baita ere proiektua lantzean zuzendaritzak izan duena azalduz.

Eta irudiari loturiko gunea, bai, baina COFFetik askatua. Enrique Ordoñezentzat Tabako Fabrikak irudiari loturiko espazioa izan behar zuen, zeinaren ardatza COFF izango zen. Baina bestelako bidea hobetsi du zuzendaritzak, eta horrek, hasteko, mugikortasuna eta bizia emango dio KGNGri.

Irudiaren gunea, bai, baina nonbait, irudia ez da aski Donostiak nazioartean dirdira egiteko. Eta gastronomiak duen fama baliatuko dute jendea erakartzeko; horrela eta ez bestela ulertzen baita gastronomiak KGNGn izango duen lekua, zientziari eskainitakoa bezala behartuxe sartutako alorra baitirudi, lehen begiratuan.

Sortu, kultura sortuko duen fabrika bilakatu nahi dute tabakoarena izan zena. Kultura, kritika, erakusketak, hausnarketak sortuko dituen fabrika. Baliabideak eskainiko dituen, tresna izango dena. Hitz horiek guztiak, orain arte, Artelekurekin lotu izan dira, bereziki. Eta aurrerantzean? Hasiera batean Artelekuk izan behar zuen KGNGren edukien zuzendaritzaren funtsezko erreferentzia, baina Santi Erasok utzi eta Artelekuren zuzendaritza erabaki gabe dagoen artean, bi hutsune erakusten ditu proiektuak: bata, arte garaikidearen esparruari dagokiona, ez baita oso zehatza; eta bestea, Artelekuren eta KGNGren esparruen zehaztasun eza. Bi

proiektuek etorkizunean eskutik joan behar dutela nabarmena da, baina KGNGren proiektuak gaurkoz, itzalean utz dezake Artelekurena.

Eta ezin aipatu gabe utzi Euskadiko Liburutegia. Ez da KGNGren parte izango, baina bai Tabako Fabrikarena. Izena jakinarazi dute; izana, apenas. Baina izenak, esaten du zerbait. Non gelditzen da Euskal Herriko Liburutegi Nazionalaren proiektua? Zer eduki jasoko du? EAEn argitaratutakoa? EAEkoek argitaratutakoa? EAeri buruzkoa? Eta EAetik kanpoko euskarazko lanak? Eta EAEko erdarazko lanak? KGNGri nola eragingo dio Euskadiko Liburutegia k?

Gaurtik aurrekontua zehazteko garaia hasiko da KGNGren ibilbidean. Baina entzuteko garaia ere bai. Gizarteratzekoa. Etorkizunari sustraiak jartzekoa.